-La dirección llevaba ya un tiempo trasladando al comité que las ventas estaban bajando, y nuestra respuesta ha sido siempre la misma: que los objetivos que se marcaban eran demasiado ambiciosos para cómo está el sector, que se ha llenado de supermercados urbanos. Ha habido una bajada de ventas fruto de esa competencia feroz, pero la empresa no va mal y las cuentas, ni mucho menos, justificarían un ERE.

**-Desde el anuncio ha habido varias reuniones empresa-comité. ¿En qué momento de la negociación estáis?**

-En un primer momento, plantearon el cierre de cuatro tiendas, que supondrían la destrucción de entre 80 y 100 puestos de trabajo, sin recolocaciones. Evidentemente, les trasladamos nuestra oposición "a este plan de viabilidad".

Pero es que su "alternativa" fue plantearnos la reconversión de esas cuatro tiendas en tiendas de conveniencia, siete de siete, tipo Opencor, "para paliar las pérdidas". Evidentemente, también nos negamos.

**-¿Por qué no es una opción para vosotras?**

-En primer lugar, estas tiendas de conveniencia -que abren 18 horas al día durante 365 días al año- se rigen por el convenio estatal, con unas condiciones laborales muy inferiores a las que marca el convenio de Bizkaia.

## Simplyk lau denden itxiera eta 80-100 langile inguruen kaleratzea planteatu du

En segundo lugar, es una oferta en la que no se concreta nada, lo que supondría dar un cheque en blanco a la empresa.

**-Estos planes chocan frontalmente con la defensa numantina del "Aquí cero aperturas en domingos y festivos" que ELA lleva años realizando.**

-Esa es la tercera razón de nuestra oposición frontal a los planes de Simply-Sabeco. Los únicos que ganan con la liberalización de horarios son las grandes cadenas, que no aumentan sus ventas pero que precarizan condiciones laborales y de paso se cargan al pequeño comercio. Para ELA, acceder a las pretensiones de Simply sería abrir la caja de pandora; el resto de grandes cadenas intentaría hacer lo mismo. En nuestra opinión, detrás de esta operación hay mucho más de lo que dicen: es un intento más de abrir los domingos y festivos.

Creemos que se trata de un chantaje inaceptable y no vamos a tragar.

**-¿Qué alternativa planteáis los sindicatos?**

-La alternativa es la lucha. Todos los sindicatos hemos hecho el mismo diagnóstico y lectura de lo que están intentando y hemos acordado realizar movilizaciones conjuntas. Entre ellas, concentraciones todos los viernes delante de las 24 tiendas que Simply tienen en Bizkaia. Éste no es un problema de las cuatro tiendas afectadas; es un problema de todos. Y vamos a pelear por todos y cada uno de los puestos de trabajo actuales, porque en Simply no sobra nadie.

**-¿La gente está fuerte?**

-Sin duda. Además de las concentraciones en las tiendas, estamos llevando a cabo numerosas acciones para visibilizar nuestra lucha. El pasado 29 de marzo irrumpimos en un acto de la empresa; aprovechando la Semana Santa, hemos salido con el paso de la Virgen de las Barricadas...

Vamos a pelear hasta que la empresa de marcha atrás, sin descartar llegar a la huelga.

EKOLOGIA
MEDIO AMBIENTE

# Goiener: oligopolio energetikoari alternatiba

ELA-K KANPAINA BAT HASIKO DU AFILIATUAK KOOPERATIBA HONETARA PASA DAITEZEN

› NORA ONAINDIA

**ELAn asko hitz egin dugu argindarraren prezio altuaz, Espainiar Estatuko energia ereduaz edo zeintzuk diren bere azpijokoak.**: Orain, ELAri sistemaren kritikatik aparte urrats bat ematea dagokio. Alternatibak daude eta horretaz hitz egin nahi dugu: argindarraren kooperatibei buruz. ELA jada pasatu da hemen sortutako kooperatiba energetikora, Goienerrera, eta gure asmoa kanpaina bat sortzea da gure militanteak ere Goienerrera aldatu daitezen.

### Zer da Goiener?

Goiener energia berriztagarrien sorkunza eta ekoizle proiektu kooperatibo bat da, non bere helburu nagusia burujabetza energetikoa den.

### Zergatik sortu zen?

Goiener haserre sozialaren eta energia tzientziazioaren ondorioz sortutako kooperatiba energetikoa da. Haserre honen kausak oligopolioengan kontrolatuta dagoen Espainiako energiaren merkatuan eta ate birakarien fenomenoan bila daitezke. Hala ere, proiektuak erreakzio sinple bat izatetik areago joan nahi du, Goienerren atzean kohesio soziala eta kontsumitzaileak ahalduntzea bilatzen duen proiektu bat dago.

### Zein da proiektuaren helburua?

Garraioa eta banaketa oraindik ere erregulaturik jarraitzen dutenez, liberalizaturik dauden argindarraren sektorean sartzea du helburu Goienerrek, hots, energia berriztagarria sortzea eta bazkideei banatzea.

Helburu horretan uste baino oztopo gehiago izan dituzte: 2012. urtean, Goienerreko proiektua hastear zegoenean, Espainiako gobernuak RDL 1/2012 atera zuen, energia berriztagarrien primak bukatutzat eman zituena. Hori dela eta Goienerrek erabaki bat hartu behar izan zuen, sorkuntza garatzeko itxarotea, eta liberalizatuta dagoen beste atal batekin hastea: merkaturatzearekin. Horretarako, energia berdearen merkaturatze kooperatiba bat bezala eratu zen.

### Zergatik aldatu Goienerrera? Eta zergatik orain?

Goiener bakarrik berde egiaztapenen bidez ziurtatutako berriztagarri energiarekin hornitzen da. Horrek Goienerreko bezero guztiek kontsumitzen duten argindar guztia berriztagarria dela esan nahi du. Goienerreko ezaugarri honek ez du esan nahi bazkideek euren argindarraren truke gehiago ordaintzen dutenik.

2017. urtea Goienerrentzat urte oso garrantzitsua izango da, bazkide kopuru nahiko bat lortu duelako merkaturatze hutsetik sorkuntzara pasatzeko. Horregatik da hain garrantzitsua aurten Goienerrera pasatzea, eta horrela eredu energetikoa transformaziorako lagundu.

### Nola aldatu Goienerrera?

Oso erraza da, ordenagailuz 10 minututan egiten den tramite batekin aldatzen zara. Tramite horren bitartez Goienerreko kooperatibista bihurtzen zara (100 euroren truke), eta horren ondorioz, kontsumitzaile huts bat izatetik ahotsa eta erabakiak hartzeko gaitasuna izatera pasatzen zara.

Es mucho lo que hay que cambiar y son muchas las razones para profundizar en esa transformación. Lo que está claro es que somos los consumidores los que tenemos que ser promotores de ese cambio. Y es que, cada vez que consumimos estamos ejerciendo nuestra capacidad de decidir. Es difícil a veces lograr que las personas nos concienciemos de nuestra capacidad de transformación, pero a veces es incluso más arduo contar con las alternativas suficientes como para poder ejercer nuestra capacidad de decidir.

Es ahí precisamente donde Goiener y las otras cooperativas energéticas cobran su valor: nos dotan de las alternativas fuera del oligopolio de las que antes carecíamos.

### Bestelako argudioak Goienerrera pasatzeko

Gure ideia politikoekin koherente den era batean kontsumitu ahal izateko: askok, egungo energia ereduaren aurka gaude, edota berdina dena, Iberdrola, Endesa, Gas Natural Fenosak,...osatzen duten oligopolioa, non dena interes ekonomiko konkretu batzuetara mugatuta dagoen, eta non konpetentzia erreala ez da existitzen. Ereduaren ezaugarri horiek areagotzen dira kontuan hartzen badugu etekina ateratzen ari direla gure bizitza era duin batean behar dugun ondasun batekin.

*Aldatu behar dena asko da, eta asko dira transformazio honetan sakontzeko arrazoiak. Argi dago kontsumitzaileak direla transformazio honen eragileak izan behar direnak. Kontsumitzen dugun bakoitzean geure erabakitzeko eskubidea erabiltzen ari garelako, edo beste hitz batzuetan, erosketa bakoitza ekintza politikotzat hartu behar dugulako. Behin kontsumitzaile gisa gure eraldatzaile boterea zein garrantzitsua den jakinaren gainean egonda, aukerak behar ditugu gure erabakitzeko boterea teoriatik ekintzetara pasatu ahal izateko, eta hori da zehazki Goienerren balioa argindarraren oligopoliotik kanpoan dagoen irtenbide bat baita.

## DESDE IPARRALDE
## IPARRALDETIK

# Euskara eta Euskal Elkargoa

ARGITXU ETXANDIK EUSKAL HIRIGUNE ELKARTEAK EUSKARAREN INGURUAN ESKAINIKO DITUEN AUKEREN INGURUAN HAUSNARTZEN DU




› XABIER HARLUXET

**Ipar Euskal Herri mailan, Euskal Hirigune Elkargoarekin martxan jarri** berri den egituraketa instituzional berriak hizkuntza politika mailan pauso kualitatibo zein kuantitatibo baten emateko parada eskaintzen du. Jarraian Kontseiluan arizan den **Argitxu Etxandi**-ren hausnarketa.

**Aitortza juridikoa.** Lehenik eta behin, Euskal elkargoa baliatzen ahalko da hizkuntza politika eredugarriaren bidean jartzeko, eta euskarari gutxieneko aitortza juridiko baten eskaintzeko, Frantziako beste eskualde anitzetan egin den bezala, alegia.

Ideala liteke benetako lege estatus baten lortzea baina badu urteak Parisetik promesak egiten direla sekula gauzatu gabe. Hori dela eta, Euskal Elkargoa hizkuntzaren estatusa tokitik eraikitzeko parada izan daiteke, lurralderi lotuz eta esperimentazio bidea baliatuz.

Gutxieneko estatu horren baitan, agerrarazi beharko lirateke hiru elementu:

- Euskara bertako hizkuntza dela
- Euskara hizkuntza gutxitua dela

eta euskaldunak diglosia egoeran bizi direla; horrek erran nahi du sozio-linguistikan frantsesak gaina hartzen duela ala funtzio inportanteagoa aitortzen zaiola. Alta, Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren baitan, hizkuntza bakoitzak balio bera du.

- Beraz, berdintasunaren printzipioan oinarrituz, frantsesa eta euskarak egoera ezberdina bizi dute; orduan, trataera ezberdina aplikatzen ahal zaie. Gure kasuan, lehentasuna eman beharko litzaioke euskarari, gutxienez frantsesaren hein berean agertu ahal izan dadin.

Otsailaren 4an, Herri Elkargoak "euskararen aldeko hizkuntza politika"-ren eskumena bere gain hartu du.

**Hizkuntza Politikaren gidaritza.** Euskal Elkargoa hizkuntza politikaz jabetuz geroz Euskal Elkargoa izan beharko litzateke hizkuntza politikaren gidaria. Gidaritza kontzeptua NOTRe legean agertzen da: edozein politika publiko kudeatzeko, lurralde erakunde bat ala HELEP bat izan beharko da gidaria.

EEP (Euskararen Erakunde Publikoa) eta Elkargo Bakarra elkarrekin arituko dira hizkuntza politikaren eremuan. EEPk gaur egun egiten dituen lanetan segituko du beste lurralde erakundeekin solasteko eta koordinatzeko gune gisa, bereziki hizkuntza politikaren kudeatzeko, zentzu horretan, eskumen delegazio eta transferentziak adosteko ere gaitasuna luke.

**La nueva realidad institucional de Ipar Euskal Herria puede ofrece la opción de dar pasos muy importantes en favor del euskera**

**Con la creación de la nueva colectividad para Iparralde se le podrá dar un nuevo valor al euskara, también en el mundo del trabajo**

Azkenik, Euskalgintzak ere bere tokia birdefinitu beharko du egituraketa berri honetan, inor baino hobeki ezagutzen dituelako euskararen beharrak eta euskaldunen egoera. Euskal Elkargoaren euskara batzordean parte hartzea liteke hoberena, zuzenean eragile publikoekin batera hizkuntza politika elikatzeko gisan. Izan ere, orain arte ez zaio merezi duen tokia eskaini euskalgintzari, beti aurkitu behar izan ditu zeharkako bideak eragiteko, Garapen Kontseiluaren bidez bereziki.

Berrantolaketa horretaz gain, instituzionalizazio prozesu hau parada izan behar da euskarari merezi duen balioa eskaintzeko, berezko hizkuntza izaki. Errate baterako, Alsazian, alsaziera zinez funtsezkoa da bertan lan egiteko, mugaz gaindiko merkatuan. Izan ere, 90 hamarkadan hizkuntza gaitasuna galdu zenean, langabezia berehala igo zen. Orduan, Euskal Elkargoaren sorrerarekin ere, euskarari balio berezia eskaintzen ahalko zaio lan munduan.

**Larrunalde.** Kontseiluak garatutako Larrunalde esperientziak erakutsi digu, aitortza juridikoa eta hizkuntza politika bateratu eta burujabea lortu arte, bitartean posible dela hainbat neurri hartzea arlo ezberdinetan, lege frantsesak tolerantzia asko uzten duelako azken finean. Hots, Herriko Etxe guztiek jadanik indarrean diren neurri egoki guztiak bideratzen balituzte, hizkuntza-politika egoki bati buruz hurbilduko ginateke. Metodo hau ere oinarri interesgarria izan daiteke Euskal Elkargoarentzat, benetako estatus juridikoa finkatu arte.

LEGEAREN BUELTAK
PAGINAS JURIDICAS

# Estatalizazioaren bidaide edo euskal hitzarmenen autonomiaren alde

ESTATUAN EGITEN ARI DEN NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA EZ DA BATERAGARRIA EUSKAL LANGILEEK NAHI ETA BEHAR DITUZTEN HITZARMENAK SINATZEAREKIN



› HAIMAR KORTABARRIA

**Martxoaren 16ko Euskal Autonomia Erkidegoko Aldizkari Ofizialean Ostalaritza alorreko EAEko Esparru Akordioa argitaratu zen.** Argitaratzea egun hartan eman bazen ere, 2017ko urtarrilaren 9an sinatu zuten akordio hori ELA eta LAB sindikatuek –%80tik gorako ordezkaritza dute sektorean– eta Euskadiko Ostalaritza Federazioak. Confebaskek, hasiera batean ez bazuen sinatu ere, bere erabaki-organoei kontsulta egin ondoren babesa eman zion Esparru Akordioari. Mahaian ordezkatua dagoen ostalaritzako patronal osoak akordioa sinatuta, CCOO eta UGT sindikatuak soilik geratu dira akordiotik kanpo.

Akordiok helburu bakarra du: EAEko probintzietako ostalaritza arloko hitzarmenak Estatuko hitzarmenen aurretik aplika daitezela. Akordioa laburra izan arren, helburua ez da batere xumea, bertoko hitzarmenek estatukoek baino eduki dezente hobeak jasotzen dituztelako: estatuko mailako edo EAEko probintzietako hitzarmenak aplikatzeak %50 arteko soldata desberdintasuna suposa lezake zenbait kasutan.

Edukiei erreparatuta, langile-ikuspegi batetik behintzat, albiste pozgarria izan beharko litzatekeena gogo txarrez, oldarkor, hartu dute Estatuko Ostalaritza alorreko Lan-Akordioaren –ALEH, Acuerdo Laboral Estatal del sector de la Hostelería– sinatzaile diren CEHAT eta FEHR patronalek zein CCOO eta UGT sindikatuek. Hori erakusten du erakunde horiek ALEHren batzorde parekidearen baitan hartu eta lau haizeetara zabaldu duten erabakiak: Ostalaritza alorreko EAEko Esparru Akordioa ilegala da ALEHk ezarritako negoziazio kolektiboaren egitura eta Langileen Estatutuaren 83 eta 84. artikuluetako konkurrentzia erregelak errespetatzen ez dituelako, eta euren esku dauden tresna legal guztiak erabiliko dituzte estatuko hitzarmena EAEn ere aplika dadin.

Nola azaldu liteke, galdetuko dio batek baino gehiagok bere buruari, estatu mailako bi sindikatu hauek horren oldarkor agertzea langileentzat okerragoak diren lan-baldintza batzuen defentsan? Paradoxa horri izen abizenak jarri dizkio ELAk: negoziazio kolektiboaren estatalizazioa. Legeak eskaintzen dituen aukerak muturrera eraman eta estatu osoko lan-baldintzak zein baldintza horiek ezartzeko irizpideak estatu mailako patronal eta sindikatuek erabakitzea da estatalizazioa. Estatu mailako sindikatu handientzat nahikoa da, antza denez, negoziazio kolektiboaren monopolioa eskuratzen joatea, horretarako lan-baldintzak erlatibizatu behar badira ere.

**Joku bikoitza.** Gaur egun estatu mailan egiten ari den negoziazio kolektiboa ez da bateragarria euskal langileen gehiengoak nahi eta behar dituen hitzarmenak sinatzearekin. Bata edo bestea aukeratu behar da, euskal hitzarmenak Madrilekoen menpe egotera kondenatu nahi ez badItugu. Helburu horrekin berarekin sinatu zen hain zuzen ere –estatu mailako bi sindikatu nagusien babesarekin gainera– hainbeste zeresan eman duen EAEko negoziazio kolektiboaren egiturari buruzko lanbide-arteko akordioa. Bere hitzaurrean irakur daitekeenez: "... xedea da EAEren eremuan negoziazio kolektiboko egitura bat ezartzea, baita Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldeko eta lurralde arteko estatutuaren araberako hitzarmen eta akordioei aplikatzeko lehentasuna ematea haiekin batera gerta daitezkeen estatu mailako bestelako hitzarmen edo akordio batzuen aurrean".

Euskal esparruko eta Estatuko hitzarmenen arteko gatazka hau ez da berria. Gogora dezagun Restaurazio Kolektiboko Estatuko Hitzarmena sinatu zuen patronalak Bizkaiko Ostalaritza hitzarmenaren aurka jarritako demanda. Gatazka, gainera, bere horretan mantenduko da estatu mailako patronalek estatalizazioa gauzatzeko bidaideak aurkitzen dituzten bitartean. Eta estatalizaziorako bidaide denak ezin du bere burua euskal esparruaren babesle gisa aurkeztu, EAEko lanbide-arteko akordioa sinatu badu ere.

## MERA POSE

Se ha publicado en el BOPV el Acuerdo Marco de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el ámbito de la Hostelería, firmado por la patronal Federación de Hostelería del País Vasco, Confebask y los sindicatos ELA y LAB. Sin embargo, los firmantes del V Acuerdo Laboral de ámbito Estatal del sector de Hostelería -CEHAT y FEHR, por parte patronal, FeSMC-UGT y Servicios-CCOO, por parte sindical- han anunciado medidas legales frente al Acuerdo vasco, a pesar de regular mejores condiciones laborales.

Se trata de otro capítulo más en el conflicto entre convenios estatales y vascos; conflicto que va a subsistir en la medida en que la patronal estatal siga contando con aliados sindicales que aboguen por la estatalización de la negociación colectiva. Y quien está por la estatalización no está por la autonomía de los convenios vascos. Estas actuaciones convierten el apoyo al acuerdo interprofesional de la CAPV en relación con la estructura de la negociación colectiva en una mera pose.

# “Se está erosionando el derecho de huelga”

## HAIMAR KORTABARRIA, DEL GABINETE TÉCNICO, AFIRMA QUE LA SENTENCIA DEL SUPREMO SOBRE EL CASO ALTRAD RODISOLA ES CONTRARIA A LA DOCTRINA DEL CONSTITUCIONAL SOBRE EL DERECHO DE HUELGA



**› J. JAIO**

**Una sentencia del Tribunal Supremo, de 16 de noviembre de 2016, sobre el caso Altrad Rodisola** en materia de modificación sustancial de condiciones de trabajo y derecho de huelga en un contexto de descentralización productiva ha hecho saltar todas las alarmas. Haimar Kortabarria valora negativamente una sentencia que supone un paso adelante en la limitación del derecho de huelga.

**-¿Cuáles son los hechos que se juzgan?**

-La empresa Altrad Rodisola, dedicada a andamiaje, pinturas y aislamiento, presta servicio a dos empresas clientes, Dow Ibérica y Basell. Altrad plantea a su plantilla una modificación sustancial de condiciones de trabajo, y estos se declaran en huelga. Los trabajadores de Altrad impugnan esa modificación sustancial alegando que se ha vulnerado su derecho a la huelga ya que las empresas contratistas, Dow y Basell, han derivado sus trabajos a otras, debilitando su posición negociadora.

**-Esta impugnación la vio la Audiencia Nacional y estimó la demanda de los trabajadores de Altrad.**

-Así es. Entendió, en primer lugar, que la derivación de las dos empresas clientes a una tercera de los trabajos que deberían desempeñar los huelguistas de Altrad vulneraba el derecho de huelga de estos; y, en segundo lugar, que las vulneraciones del derecho de huelga pueden ser realizadas por terceras empresas distintas de la empleadora directa de los huelguistas, si tienen una especial vinculación con aquél.

**-¿En qué se basaba la Audiencia Nacional?**

-La AN basó su decisión en la línea doctrinal marcada por la sentencia del grupo Prisa, el caso Coca-Cola y, muy especialmente, la sentencia del Tribunal Constitucional del caso Samoa. La conclusión a la que llega el TC en sentencia 75/2010, de 19 de octubre, es la siguiente: *“De poco servirían las prohibiciones, garantías y tutelas establecidas en la legislación laboral en relación con las actuaciones empresariales lesivas del derecho de huelga si se admitiera que éstas alcancen únicamente al contratista, empresario directo en la relación laboral, y no al empresario principal, que es sobre quien habrán de recaer en última instancia los efectos económicos lesivos de la huelga y quien, por tanto, podrá estar igual o más interesado que el contratista en combatirla”.*

El TC concluye que sería constitucionalmente inaceptable que en el contexto de la relación entre contratista y contratante, en la práctica no pudiese otorgar tutela jurisdiccional ante vulneraciones de derechos fundamentales.

**-La empresa recurrió la sentencia ante el Tribunal Supremo, y ahí se produjo la sorpresa...**

-Así es. El T.S., en sentencia de 16 de noviembre de 2016, revoca la sentencia de la Audiencia Nacional y estima el recurso de las empresas.

**-¿En qué se basan para tomar esta decisión?**

En primer lugar, afirma que no existe una vinculación que justifique hacer responder a Altrad Rodisola de una conducta en la que no ha participado ni ha podido intervenir. Defiende, en definitiva, que entre los clientes Dow y Basell y Altrad no hay una especial vinculación.

Dice, también, que los propios demandantes entendieron que las empresas Dow Chemical y Basell Poliofelinas no habían conculcado el derecho de huelga ya que no las demandaron y, por tanto, no apreciaron que existiera entre ellas y la demandada Altrad ninguna especial vinculación que las obligara a respetar la huelga; lo cual resulta llamativo teniendo en cuenta que entre los hechos probados figura que Basell tiene formalizado con Altrad un contrato de servicios de andamiaje, aislamiento y pintura con una vigencia de tres años.

Finalmente, la sentencia concluye afirmando que si se aceptara la tesis de la Audiencia Nacional sobre qué es una especial vinculación, eso nos llevaría a una protección desmesurada del derecho de huelga.

**-¿Qué valoración hacemos de esta decisión del Supremo?**

-No estamos de acuerdo con su línea argumental, y resulta sorprendente la ausencia absoluta de toda cita a la doctrina del Tribunal Constitucional. Respecto al tema de la vinculación entre empresas, el TC no exige ningún nexo de grupo o conexión mayor que la propia de un cliente y empleador.

En conclusión, esta sentencia es contraria a la doctrina del TC sobre el derecho de huelga, privándolo de toda efectividad en el caso de la subcontratación.

**-¿El derecho de huelga es el enemigo a batir?**

-Es evidente que los trabajadores y trabajadoras vivimos tiempos muy duros en lo que a derechos se refiere. Las sucesivas reformas laborales se cargaron parte del derecho laboral tradicional, y vemos cómo existe en algunos sectores un interés en limitar o, incluso, acabar con el derecho de huelga.

El derecho de huelga es un derecho fundamental que debería haber sido desarrollado por una ley orgánica, pero se ha ido configurando alrededor de sentencias del Tribunal Supremo y el Tribunal Constitucional, que han ido moldeando el derecho y, en ocasiones, erosionándolo. La sentencia Altrad es un paso más, importante, en esa línea.

**-La sentencia sobre Altrad ha tenido un gran eco mediático pero, en nuestro entorno, hay casos parecidos.**

-Así es. El Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en sentencia del 4 de julio del 2000, bendijo la actuación de Osakidetza de derivar a otras empresas los análisis que realizaba Osatek ante una huelga de los trabajadores/as de esta subcontrata.

Esta sentencia fue refrendada por el Supremo.

GIZARTE EREDUA
POLÍTICA SOCIAL

# Eros-ahalmena galtzen

LANGILE KLASEAK EROS-AHALMENAREN GALERA HANDIA SUFRITU DU AZKEN URTEETAN; ELA-TIK HAINBAT NEURRI PROPOSATU NAHI DITUGU EGOERA HAU IRAULTZEKO



› IÑAKI SALABERRI

**Soldata da biztanleriaren zati handienak bizirauteko duen diru-sarrera iturri bakarra edo, bakarra ez bada, nagusia.** Kapitalik ez duen neurrian, langileriak soldata baten truke bere denbora eta esfortzua lan gisa eman behar du bizi-raun ahal izateko; hori dela eta, langile klasearen ezaugarri garrantzitsuenetakoa ere soldata da.

Iazko azken datuaren arabera, Hego Euskal Herrian milioi bat pertsona baino gehiagok egiten du lan soldata baten truke. Alderaketa gisa, nork bere kabuz egiten dutenen kopurua ez da 173.000 lagunera iristen.

Hala eta guztiz ere, ez dago informazio askorik soldatei buruz. Asko hitz egin ohi da hitzarmenei buruz, ea hobeagoak diren edo ez. Baita Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruz ere, hartzaileek lanik egin nahi ez dutela esanez eta iruzurrez beterik dagoela baieztatuz: errealitateak dio, ordea, prestazio hori pobrezia mailaren azpitik kokatzen dela eta iruzurra %0,3koa besterik ez dela.

Horren aurrean, ez da horrenbeste aldiz aipatzen legez ezartzen den gutxiengo soldata murritzegia dela eta jasotzen duten langileak pobrezian itotzen dituela. Ezta lan-baldintzak gero eta prekarioagoak direla, edo emakumeek pairatzen duten etengabeko diskriminazio bidegabeaz.

Kapitalaren jabeek, beraien esku dauden komunikabideek eta menpean dituzten alderdi politiko sistemikoek egiten duten bezala, gizartearen jakin-mina eta interesa bere nahien arabera bideratzen dute. Hortaz, ez da kasualitatea soldatei buruzko eztabaidarik ez egotea; ezta fiskalitate, aberastasunaren banaketa eta bestelakoei buruz ere.

Soldatek duten garrantzia ukaezina da, eta gogoetaren erdian kokatu beharreko gaia da. Jorratu ahal izateko, dagoen informazio eskasari so egin behar zaio, lehenik eta behin.

**Gaur egun soldaten inguruan erabilgarri dagoen informazioa eskasa da.** Alde batetik, Espainiar estatuko estatistika erakundeak bi inkesta egiten ditu (urterokoa bat, lau urtean behin bestea) eta, bestetik, Gipuzkoako Foru Ogasunak 2014ko txostena argitaratu zuen. Azken hau guztiz ezohikoa da, lehen eta azken aldiz egin baita: aurreko gobernuak egin zuen, EH Bilduren esku zegoenean, eta ondorengo gobernuak ez dio jarraipenik eman.

**El peso de las rentas de trabajo en la riqueza ha bajado durante la crisis; 1.582 millones de euros en los últimos cinco años**

**Los salarios de quienes tienen empleo temporal son un tercio más bajos que los que tienen contrato indefinido y las mujeres ganan un 25% menos que los hombres**

Informazio guzti horien arabera, argi eta garbi azaleratzen da soldatek eros-ahalmena galdu dutela azken urteotan, prezioak baino askoz ere gutxiago hazi egin baitira. Joera hau *subprime* krisiaren hasierarekin eta lan zein negoziazio kolektiboaren erreformen ondorioz areagotu egin da.

Gainera, soldatek aberastasunean duten pisua era nabarmenean murrizten dabil, 2010-2015 urteen artean BPGtik 1.582 milioi euro galduz Hego Euskal Herrian. Kontrako aldean, kapital errentak gero eta handiagoak dira.

2015eko batez besteko datuei so eginez, EAEn langile baten soldata hilean 2.250 euro gordin ingurukoa zen, 12 ordainsaritan banatuta. Nafarroan, ordea, datua 2.056 eurokoa zen. Kopuruok altuagoak ziren kontratu finkoa zutenen artean tenporala zutenen artean baino: zehazki, heren bat altuagoak dira batez besteko soldatak kontratua finkoa denean.

**Lanaldiaren arabera ere soldaten kopuruak asko aldatzen dira:** lanaldi osoan lan egiten dutenen soldata partzialean egiten dutenena baino hiru aldiz handiagoa da. Aipagarria da oso lanaldi murritzean dabiltzanen %78 emakumeak direla. Batez besteko soldatan ematen den emakumeenganako diskriminazioa oso nabaria da: EAEn emakumeen soldatak gizonenak baino %24 baxuagoak dira eta Nafarroan %30 murritzagoak. Eta, ezberdintasunak txikiagotu ordez, 2008az geroztik ezberdintasunak handituz doaz.

Baina beste diskriminazio mota batzuk ere ematen dira. Hala nola: gazteen soldatak 45-55 urteen artekoenen erdia dira; aipaturiko kontratu eta jardunaldi motaren araberakoa; industrian beste sektoreetan baino gehiago kobratzen da eta baita sektore publikoan ere; soldata altuenak jasotzen dituzten langileen hamarrenak baxuenak jasotzen dituzten hamarrenak baino 10 aldiz gehiago kobratzen du.

Datu hauekin, ez da harritzekoa Hego Euskal Herrian 74.400 langilek hilean 449 euro baino txikiagoa den soldata jasotzea. Gogoratu dezagun gure herrialdean gutxieneko soldata Espainiar estatuko gobernuak ezartzen duela legez: aurten 825,65 eurokoa da 12 ordainsaritan, eta pobrezia mailaren azpitik kokatzen da. Beraz, langile asko eta asko pobrezia egoeran ari dira lanean, eta lanaren truke lortzen duten soldatak ez die pobrezia egoera horretatik ateratzeko balio. Hego Euskal Herriko beste lan gile mordoa, 207.800 hain zuzen, oztaozta daude pobrezia mailaren gainetik, 1.094 euro baino baxuagoa den soldata baitute hilero.

## Hay que establecer un salario mínimo de 1.200 euros para garantizar un nivel de vida y salarial digno para la clase trabajadora

Negoziazio ahalmenari so eginik, soldata altuenak enpresako edota lantokiko akordioa duten langileek jasotzen dituzte; hitzarmen edota negoziazio esparrua zabaltzen eta estatalizatzen doan heinean, soldatak murriztuz doaz.

Europarekiko alderaketa egitean, EAE eta Nafarroako soldaten kopuruak Europar Batasuneko batez-bestekotik hurbil kokatzen dira. Alabaina, noren aurretik eta atzetik gauden ikusita, soilik Europako ekialdeko eta hegoaldeko estatuen soldaten gainetik gaude, Italia, Irlanda edota Estatu frantziarrekoen azpitik geratuz.

**Egoera hau errotik aldatzeko,** enplegu duina sortu eta biztanleriaren eros-ahalmena gehitzeko, ELAk honako neurriak hartzea plazaratzen du:

- Informazio eta gardentasun maila areagotzea eta gizartearen eskura jartzea, analisi eta gogoeta prozesu bat abiatuz gai honen inguruan. HEHko Ogasunek informazio osoa eskaini behar dute.
- 1.200 euroko gutxiengo soldata ezartzea langileriaren soldata eta bizibaldintza duinak bermatzeko.
- KPIz gaindiko soldata igoerak aplikatu behar dira, galdutako eros-ahalmena berreskuratzeko eta soldatek BPGan duten garrantzia %60ra iritsi dadin berriro ere.
- Adin, sexu eta jatorriak sortarazten dituen diskriminazio egoerekin amaitzea, emakumeek jasaten duten soldata eta lan diskriminazioa ezabatzea ezinbestekoa delarik.
- Prekaritate egoerak desagerrarazi esparru eta arlo guztietan, soldatetan eta orokorrean enplegu eta bizi kalitatean. Kontratu mugagabea izan behar da kontratazio era ohikoena eta enpleguan ematen den iruzurraren aurka ekin behar da.
- Lanaldiaren murrizketan aurrerapausuak eman behar dira, asteko lanaldia gehienez 35 ordutara murriztuz, soldata jaitsierarik gabe. Horrela enplegu gehiago sortzen da langabezia gutxituz.
- Negoziazio kolektiboa Euskal Herrian gauzatzea. Hemengo lan baldintzak hemen erabaki behar dira.
- Estaldura sozial duinak ezartzea. Horrenbestez, beharrezkoa da gizarte-prestazioen erosteko ahalmena hobetzea.
- Aurrekontu eta zerga-politikak errotik aldatzea. Doitzeko eta murrizteko politikak bertan behera uztea ezinbestekoa da.
- Arlo publikoa garatzea, batik bat ongizate estatuarekin lotutako zerbitzuei dagokienez. Enplegu publikoa gehitu beharra dago osasungintzan, hezkuntzan, gizarte-zerbitzuetan, garraioan, etab.
- Enplegu berdeen sustapena. Funtsezkoa da gizarte eta ekologia eraldaketa gauzatzea ekonomian, jarduera iraunkorrak sustatuz, egungo produkzio, banaketa eta kontsumo eredua aldatzeko. Horretarako aktibitate ekonomikoak birkokatu behar dira.

## PÉRDIDA DE PODER ADQUISITIVO

**El salario es la principal fuente de ingresos de la mayoría de la ciudadanía.** La clase trabajadora, en la medida en que carece de capital, ha de emplear su tiempo y esfuerzo para obtener un salario con el que poder subsistir.

Pese a que más de un millón de personas trabajan por un salario en Hego Euskal Herria, apenas existe información al respecto.

Los salarios han crecido muy por debajo del IPC, con lo que han perdido poder adquisitivo. Además, el capital obtiene cada vez una mayor parte de la riqueza.

Existen enormes diferencias salariales en base al tipo de contrato y jornada laboral. Además, las mujeres perciben sueldos entre un 24% y un 30% menores que los hombres.

Se constatan varias cuestiones que generan importantes diferencias salariales, que van desde la edad, el lugar de nacimiento, el convenio colectivo de aplicación, etc.

En Navarra y la CAPV, 74.400 personas perciben salarios inferiores a 449 euros. Con esa renta, quien lo percibe se encuentra en situación de pobreza absoluta.

Para cambiar esta triste realidad se han de cambiar las política actuales estableciendo un salario mínimo de 1.200 euros, eliminando las diversas formas de discriminación y los medios de aplicar la precariedad, se ha de trasladar la negociación colectiva a Euskal Herria...

## Hileko batezbesteko soldata 2014an »



## HILEKO KRONIKA
## CRÓNICA DEL MES




# Gente como tú

› **GORKA QUEVEDO**

**Sueldos de miseria que apenas sobrepasan el Salario Mínimo Interprofesional.** Encadenamiento continuo de empleos precarios temporales con empleos precarios temporales. Parados y paradas que ya han agotado todas las prestaciones por desempleo. Amenazas de deslocalización en multinacionales con multimillonarios beneficios anuales. Jóvenes con empleo en riesgo de pobreza...

Estas son algunas de la cosas que ELA denuncia –y lucha para erradicar– día a día. Son problemas que nos afectan directamente a todos y todas. Nadie –o casi nadie– puede decir que no conoce a ninguna persona que viva alguna de estas situaciones descritas. Sin embargo, cuando lo denuncias, la clase política dirigente trata de desacreditarte. Normal. Al fin y al cabo no podemos olvidar que vivimos en un oasis vasco, una especie de Arcadia feliz donde no hay ningún problema y la gente vive en la más absoluta felicidad.

Y, si además de hablar de los problemas de la clase trabajadora señalas a quienes los generan o son cómplices, directamente van a por tí. El problema no es que el reparto de la riqueza sea cada vez más injusto, que los últimos cinco años los salarios hayan perdido gran parte del poder adquisitivo, que haya trabajadoras que pese a tener empleo están en riesgo de pobreza... No. El problema es que no se pueden mencionar estos problemas, y menos analizar sus causas.

**Maiatzaren Lehenean zu bezalako milaka lagun aterako gara kalera, oinak lurrean dituen jendea**

Es como el chiste de aquel borracho conduciendo su coche en sentido contrario por una carretera muy concurrida, que enciende la radio y escucha: 'se advierte a las y los conductores que van por la Autopista 35 que hay un conductor circulando en dirección contraria', a lo que el borracho dice: 'Uno ino!, ¡cientos!'.

**Este Primero de Mayo tenemos una cita.** Y, por eso, saldremos en Bilbao e Iruñea para llenar las calles de gente como la que se describe en la viñeta que ilustra esta crónica: el repartidor de mensajería, la barrendera, la cartera, el opera-

## Kataluniako prozesuak agerian uzten du begi-bistakoa den gauza bat: Espainiarekin ezinezkoa da aldebiko harreman bat edukitzea

rio que arregla las baldosas, la frutera, el asistente social... En definitiva, la gente como tú que sufre día a día la realidad de la clase trabajadora.

Gente con los pies en el suelo. Que ríe y llora. Con sus problemas y sus satisfacciones. Gente que con su esfuerzo consigue que este pueblo salga adelante. Gente que, a diferencia del conductor borracho del chiste, circula por la dirección correcta. En definitiva, gente como tú.

**Indarberritzen.** ELA, como cualquier organización compuesta por personas, puede hacer las cosas bien, regular o mal. Pero tiene un tesoro que es el que le permite acertar o equivocarse: la independencia y autonomía política y económica. Los días 16 y 17 de junio se celebrará el XIV Congreso Confederal en Bilbao bajo el lema **Indarberritzen** (Reforzándonos). Una cita que tiene que servir para coger fuerzas y afrontar los numerosos retos que tiene la clase trabajadora. Y una cita que tiene que servir, también, para afianzar un proyecto libre, autónomo e independiente de cualquier otro elemento político, capital o financiero que no sea las cuotas de la afiliación.

Es precisamente esta independencia la que pone de bastante mal humor a gran parte de los dirigentes políticos y responsables institucionales. ELA se ha convertido en el muñeco del pim, pam, pum al que azotar. Y todo porque no hace la ola a quienes toman decisiones que perjudican a la clase trabajadora. Aquí lo importante no es que haya problemas, lo importante es que nadie los cuente ni se denuncie a sus responsables.

**Día histórico en Baiona.** El 8 de abril del 2017 pasará, sin duda, a la historia. Desde ese día ETA es una organización desarmada. Armas que han generado muchísimo sufrimiento durante años y años. Armas que se tendrían que haber callado para siempre mucho antes. Armas que -sin olvidar el aspecto ético derivado de la lucha armada- han sido, por otra parte, el mejor argumento para quienes se niegan a solucionar cualquier aspecto relacionado con los derechos de Euskal Herria. Armas que, además de generar sufrimientos innecesarios, han sido un enorme obstáculo para conseguir, precisamente, los objetivos de quienes las empuñaban.

En Baiona se cerró un ciclo; ahora es hora de abrir otro. Un nuevo ciclo en el que mediante la confrontación democrática se consigan los derechos legítimos y democráticos de Euskal Herria. Es evidente que, a día de hoy, se nos siguen negando nuestros derechos como pueblo. Es evidente, también, que las armas que se callaron para siempre en Baiona, además de generar ese sufrimiento innecesario, han sido la coartada perfecta para ello. Es hora de mirar hacia adelante y seguir luchando para conseguir una Euskal Herria libre y justa. Eso sí, sin repetir errores del pasado.

**60 años al servicio del mercado.** Los Tratados de Roma, acuerdos que dieron origen a la Unión Europea, acaban de cumplir 60 años. Una Unión Europea que se creó en un contexto histórico muy concreto –en plena guerra fría y con una Europa dividida mayormente en dos bloques–, y que una vez eliminado el "peligro" que suponía para sus intereses la Unión de Repúblicas Socialistas Soviéticas ha puesto en marcha toda su maquinaria para construir un modelo al servicio del capital y del libre mercado.

La misma Unión Europea que genera un rechazo cada vez más grande en una parte importante de la sociedad. Sus políticas neoliberales son percibidas como la principal causa de que la clase trabajadora haya visto como estos últimos años mermaba considerablemente sus condiciones de vida. Y este enfado se evidencia cada vez que la ciudadanía es llamada a votar. Ahí está el ejemplo del Brexit, donde la Primera Ministra Theresa May ya ha activado el artículo 50 del Tratado de Lisboa, por el que el Reino Unido ha pedido salirse de la Unión.

**La hora de Francia.** La siguiente gran cita con las urnas en la Unión Europea está en Francia, donde en mayo se celebrarán las elecciones presidenciales. Los partidos sistémicos siguen cayendo inexorablemente. Incluso el malestar entre sus votantes es notorio. Las primarias realizadas en esos partidos son la mejor muestra de ello: tanto en el caso de los Republicanos como en el Partido Socialista los candidatos del establishment –Alain Juppé y Manuel Valls– han sido derrotados por François Fillon y Benoît Hamon, respectivamente.

El reto de la izquierda es responder a las necesidades y problemas de esa clase trabajadora que sufre las consecuencias de las políticas neoliberales de la Unión Europea. Porque, en caso contrario, hay un riesgo más que evidente de que sean populismos racistas y xenófobos como los representados en Francia por Marinne Le Pen –Front Nacional– o en los Estados Unidos de América por Donald Trump –Partido Republicano– quienes canalicen ese malestar.

## ELAren autonomia politiko eta ekonomikoak Euskal Herriko hainbat agintari eta arduradun politiko sutu ditu azken hilabeteetan

Porque no nos podemos engañar; la supuesta izquierda política ha sido durante décadas cómplice y colaborador necesario de esas políticas que han traído miseria y pobreza a las clases populares. Por eso, o surge una verdadera izquierda que afronte esta situación o los votos de millones de trabajadores y trabajadoras irán a parar a aquellas opciones que por muy racistas, xenófobas y millonarias sean se presentan como oposición al sistema vigente.

## Dagoeneko ETA erakunde armagabea da; bazen garaia ziklo hau itxi eta beste bat irekitzeko

**Aberri Eguna.** El Aberri Eguna del 2017 viene marcado, como no podía ser de otra manera, por lo sucedido en Baiona el 8 de abril. También por el proceso soberanista de Catalunya y, más en concreto, las lecciones que podemos extraer. Al margen de ver qué rumbo coge el proceso en Catalunya –si para septiembre no está terminado el proceso de desconexión y no se celebra ningún referéndum es evidente que entraríamos en una nueva fase donde el soberanismo debería plantearse su hoja de ruta desde la raíz– estos últimos años han dejado bien claro que con España no hay ninguna relación bilateral posible. El estado español solo acepta una posición de subordinación y sumisión. En este contexto, es imposible cualquier relación de igual a igual. Y todo lo demás es (auto)engañarse.

Es imprescindible comenzar un proceso social y nacional en Euskal Herria que sirva para poder desarrollar nuestras legítimas aspiraciones de clase y nacionales. Y para ello hay que lograr acumular fuerzas para poder avanzar unilateralmente en ese proceso. De los estados, tanto el español como el francés, nada se puede esperar. Nada. El único modo para lograr la soberanía es ir construyéndola día a día.

**Gernika, gure buruan.** El 26 de abril es un día señalado en Gernika y en el resto de Euskal Herria. Ese día se cumplirá el 80 aniversario del bombardeo fascista que destruyó esta localidad. Un crimen de guerra ordenado por unos sublevados fascistas que ganaron una Guerra Civil para, tras permanecer en el poder cuatro décadas, convertir ese régimen dictatorial en una monarquía parlamentaria barnizada de democracia. Como cantaba Kortatu en la canción 'Gernika 37-87', Gernika, gure buruan.

# Ultimando el congreso

**#indarberritzen da lema, eta indarberrituz estreinatu dugu webgunea. Webgune argia da, eduki multimedia izango duena. Agenda nabarmendua ere badu, ELAkideen lanari ahal bezainbesteko isla emango diona. Era berean, egun sare sozialetan dugun jarduna bertan islatzeko aukera ere izango dugu. Eguneroko albiste eta kontuez gain, halere, badugu atal bereizi eta nabarmena: 14. Kongresuarena. Honako helbidean topatuko duzue webgunearen atal berria: www.ela.eus/eu/kongresua**

**Webgunearen egitura berrira moldatuta, baina irudi ezberdina eman nahi izan diogu guneari, kolore moreari presentzia emanez. Atal hau ere dinamikoa izango da, eta eduki mota ezberdinak bilduko ditu. Batetik, Kongresuarekin lotutako albisteak. Ez soilik ohiko albiste formatuan, baita argazki galeriak ere. Esaterako, ponentzia lantzeko ikastaroetan jasotako argazkiak. Beste alde batetik, kongresua prestatzeko edukia: ponentzia, Batzorde Eragilearen proposamena eta zuzenketak aurkezteko txantiloia (Intranetetik aurkeztu daitezkeela zuzenean). Azkenik, webguneak informazio praktikoa ere jasoko du: gai ordena eta kongresuko egitarau zehatza.**




**› ERREDAKZIOA**

**ELA celebrará su 14º Congreso confederal los próximos 15 y 16 de junio** de 2017 en el Palacio Euskalduna, de Bilbao, bajo el lema **Indarberritzen** (Reforzándonos), que condensa y refleja una idea fundamental: el congreso debe ser una cita para motivar a los cuadros militantes de ELA y recargar fuerzas para afrontar los retos de los próximos cuatro años.

Tal y como marcan los estatutos, 736 delegados y delegadas de ELA debatirán el informe de gestión presentado por la Ejecutiva así como la ponencia, que marcará las líneas de actuación para los próximos cuatro años. En estos meses que faltan hasta el Congreso se definirán las resoluciones que se votarán, así como las enmiendas a la ponencia inicial, que ya ha sido aprobada por el Comité Nacional. Para enriquecer y hacer más participativo este proceso, ELA ha puesto en marcha un debate interno en el que participarán más de 2.000 delegados y delegadas del sindicato.

**La ponencia congresual propone cuatro líneas políticas básicas,** solicita el refrendo a tres innovaciones y apuesta por unas alianzas sindicales y sociales que hagan posible esa política.

Las líneas clave de intervención son mantener la oposición a las reformas laborales y, en especial, a las reformas de la negociación colectiva; desmontar la farsa del diálogo social; confrontar las políticas de austeridad y todas sus instancias promotoras, y proponer un proceso soberanista y social que conecte las aspiraciones nacionales con las sociales de una mayoría social empobrecida.

La primera de las innovaciones se refiere al "cambio organizacional proequidad de género". La segunda, al empoderamiento de la militancia. Y la tercera, desde un punto de vista ideológico, la ponencia decanta una posición definida en términos anticapitalistas, apostando por un cambio en los sistemas de producción, distribución y consumo, y de los sistemas de reproducción social.

**Kongresuaren informazio guztia eskuragarri dituzu: www.ela.eus/kongresua**

**Ponentzia: NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA**

INDARBERRITZEN

## JOSEBA VILLARREAL

# “Ezinbestekoa da emakumeei galdetzea ea negoziazio kolektiboaren ereduak euren arazoei erantzuten dien”

› NAGORE URIARTE

**ELAk bere 14. Kongresua ospatuko du ekainean, neoliberalismoaren ekaitzaren erdian.** Kapitalismoak asmatu du kapitala pilatzeko eta kolektibitatea ahultzeko modu berrietan. Horrek lanmerkatua, sindikalgintza eta, funtsean, negoziazio kolektiboa erabat baldintzatu du. Joseba Villarreal Negoziazio Kolektiboko arduradunari galdetu diogu datozen urteetarako ardatz nagusiez.

**-*Negoziazio kolektiboa hegemonia neoliberalean* du izena ponentziaren atal nagusietako batek. Nola eragin dio hegemonia horrek negoziazio kolektiboari?**

-Negoziazio kolektiboa da langileok dugun tresna bakarra gure bizi-baldintzak hobetzeko, aberastasuna birbanatzeko, prekarietateari aurre egiteko eta diskriminazioaren aurka borrokatzeko, genero diskriminaziotik hasita, gainera.

Lan-erreformen helburua lan-kostuak eta langileria ahultzea bazen, bete-betean lortu dute. Zapatero eta Rajoyren erreformek erabat baldintzatu dute negoziazio kolektiboa; gaur egun prekarietatea legezkoa da. Miseriazko soldatak legezkoak dira eta langile klasearen antolakuntza saihestu daiteke estatu mailako negoziazio kolektiboa ezarriz, hitzarmen estatalak aplikatzea derrigorrezkoa baita hemen.

**-Baina nola egin aurre prekarietateari eguneroko akordioetan?**

-Antolakuntzaren bidez. Negoziazio kolektiboa eta antolakuntza txanpon beraren alde biak dira: antolatu ezean ez dago negoziazio kolektiborik, eta, ondorioz, ez dago prekarietateari aurre egiterik. Neurri zehatzak hartuko ditugu: prekarietate-planak garatu, mapa horietan oinarritutako lan-planak gauzatu

> “Tenemos que hacer ver a la gente que hay muchas más personas cobrando una miseria y que organizándose pueden cambiar las cosas”



> “El principal reto es introducir la perspectiva de género en la negociación colectiva”

enpresatan... Ezinbestekoa da langile guztiak aintzat hartzea, eta, batez ere, diagnostikoa berezitua egitea gizon eta emakumeen artean.

**-Diagnostiko berezitua aipatu duzu. Genero berdintasunerako antolakuntza aldaketa gauzatuko du ELAk, baina nola txertatu hori negoziazio kolektiboan datozen lau urteetan?**

